

Oso tortura gogorak salatu dituzte Mikel Egibarrek eta Nekane Txapartegik

Etengabeko kolpeak, mehatxuak eta galdeketak jasan dituztela esan diote abokatuari

Erredakzioa / Donostia

Tortura latzak salatu dituzte Mikel Egibarrek eta Nekane Txapartegik, Parisen irekitako operazio polizialaren barruan Guardia Zibilak Zizurkilen eta Tolosan atxilotutakoek. Bost egunez Guardia Zibilaren esku inkomunikaturik izan ondoren, eta beste horrenbeste espetxean, atzo hitz egin ahal izan zuten, lehendabiziko, euren abokatuekin.

TORTURA gogorak salatu zituzten atzo Nekane Txapartegik eta Mikel Arregik, inkomunikazio egoera altxatu bezain laster. Astearte goizean Parisen irekitako polizia operazioaren barruan atxilotu zituzten guardia zibilek, astearte goizean eta asteazken gauean, hurrenez hurren. Guardia Zibilaren esku egon ziren bosna egunetan, eta, Entzutegetik igaro ondoren, baldintzarik gabeko espetxeratze inkomunikatua agindu zuen beraiantzat Teresa Palacios epaileak. Atzo kendu zien inkomunikazioa Baltasar Garzonek.

Abokatuen bitartez jakindakoaren arabera, Mikel Egibar erietxeratu egin behar izan zuten atxilotua zegoen bitartean. Zizurkilen bertan hasi ziren kolpeak, Guardia Zibilaren ibilgailuan. Etengabeko galdeketak eta barrabiletan emandako kolpeak jasan zituen bide guztian, abokatuari esan zionez. Pistola buruan ipini zioten, baita esku artean ere, gero hatz-markak erabiliko zituztela mehatxatuz. Neska lagunari buruzko etengabeko aipamenak ere egin zizkioten.



Maite Ubarria guardia zibilek inguratuz, Irungo bere etxe atarian, atxilotuta eraman zuten unean.

Ubarria eta Gonzato, biak espetxera

MAITE UBIRIA, Gara egunkariako kazetaria, eta Karlo Gonzato, joan zen astearte arratsaldean Irunen eta Hondarribian Guardia Zibilak atxilotutakoak, baldintzarik gabe espetxeratzeko agindu zuten atzo gauean Carlos

Divar Espainiako Entzutegetiko epaileak. Parisko polizia operazioaren baitan atxilotuta, erakunde armatuari laguntza eman izana leporatu zien epaileak. Deklarazioa hartu ondoren kendu egin zien inkomunikazioa.

Madriren jarraitu egin zuten kolpeek, oraingoan buruan, buru atzealdean, bularran eta barrabiletan. Halako batean, konortea galdu eta erietxera eraman zuten Egibar. Erresonantzia magnetikoa eta psikomotritate probak egin zizkioten, eta, medikuek proba gehiagoren beharra azpimarratu arren, bueltan eraman zuten komi-

sariara. Egibarren kalkuluaren arabera, guardia zibilaren esku egondako denboran 80 ordu egin ditu interrogatorioetan, 8 lo eta 20 deklaratzeko eta ospitalean. Hirutan pasa dute, gainera, Entzutegetik, Palaciosen aurretik behin eta Garzonek aurretik beste bietan. Galdaketetan izandako guardia zibilak Entzutegetian ikusi zituela ere esan zuten.

Biluzik eta kolpeka izan dute Txapartegi

Nekane Txapartegi gazteak ere tortura latzak salatu zituzten epaileari. Tolosako kale batean atxilotu zuten Asteasuko zinegotzia, autoan sartu, eta ordu luzez izan zuten bueltak, non zebilen jakin gabe. Halako batean, kotxetik jaitsi, eskuak eta orkatilak lotu, eta poltsa egin zioten. Madrilgo komisarian biluzik izan zuten denbora guztian, abokatuari azaldu zionez. Atzamar bat hautsita duela uste duela ere esan zion. Bestalde, lau deklarazio egin zituen Guardia Zibilaren esku. Aurrenekoa ez zuen sinatu, baina ondorioz jasotako kolpe ikaragarrien ondoren sinatu egin zituen hurrengo hirurak.

Turrillasen ekintzekin ez dutela zerikusirik diote Alfarok eta Hortak

Legebiltzarrean irregulartasunei buruz eman azalpenok ez ziren CDN, HB, IU eta EAren gustuko izan

Juan Kruz Lakasta / Iruñea

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS parlamentario sozialistaren lan irregulartasunei dagokienez inolako erantzunik ez dutela adierazi zuten atzo Nafarroako Parlamentuan Nekazaritza kontseilari Ignacio Martinez Alfarok, eta Riegos de Navarra enpresako gerente Miguel Hortak. Biok irregu-

lartasunei buruz hitz egiteko agerraldia egin zuten Nekazaritza Batzordearen aitzinean.

Riegos de Navarra enpresa publikoko langile Sanchez Turrillasek 32 hilabete eman ditu lanik egin gabe eta soldata kobratzen, PSNko parlamentario postuak denborarik uzten ez ziola-eta. Egunkari batek berria zabaldu, eta Sanchez Turrillasek parlamentario kargua utzi zuen.

Martinez Alfarok azaldu zuenez, haren ohiko irizpidea hautetsiek dauzkaten langileekin lan ordutegiari dagokionean malgutasuna edukitzea da. Horrenbestez, kontseilariaren idurikoz «arazoa da malgutasun horren erabilpen gaiztoa egin duela».

Hortak esan zuten hainbat bider eskutitzak igorri zizkiola Sanchez Turrillasi jarrera aldatzea eskatzeko, eta,

1997ko otsailean, ezinbesteko lanuztea hartzeko gomen datu zion. Sanchez Turrillasek ez zuen onartu. Hortak adierazi zuenez, ez zuten ezinbesteko lanuztea egitera behartu partidu baten aurka erasotzat har zitezkelako. Azalpenak entzun eta gero, CDN, HB, EA eta Iuren ustez 32 hilabeteetan abisuak emateaz gain bestelako neurriak har zitezkeen.

laburrean

■ **Espainiako Kongresuaren albistearen ematen duen bideoa ikustea eskatu dute PSOEk, IUk eta EAJk**

PSOE-K, IUk eta EAJk, asteazkeneko informatibo batean ikusitako bideoa Kongresuan ikusi ahal izateko eskaera aurkeztu zuten atzo bertako erregistroan. Bi minutu inguruko bideo honetan, TVEko albiste batzuetan egiten den «manipulazioa» frogatzen dela salatu dute aipatu alderdiek. Salatzen dutenez, egun hartan Kongresuan hitz egin ziren gaien Gobernuaren iritzia baino ez da biltzen bideo honetan. Bestalde, Jose Juan Gonzalez de Txabarririk, bi galdera egingo dizkio Pio Cabanillas RTVEko zuzendariari: RTVEko zuzendaritzan ehun egun baino gehiago daramatzala, RTVEren Kongresuko Kontrol Batzordeak zer-baitetarako balio duen; eta RTVEren Informazio Zerbitzuek horren sektorial izan ahal ezin daitezkeen.

■ **'Interviu'-ko kazetariak grabatutako ahotsa ez dela berea esan du Brescia ustezko GALEko kideak**

GAL-EKO partaide zela eta 1986an bi pertsona hil ziren atentatuan egin zuela onartzen zuen elkarrizketan entzuten den ahotsa berea ez dela esan zuten atzo Entzutegeti Nazionalen Miguel Brescia Guillenek. Bi orduz Interviu aldirikaz kazetari batek grabaturiko zintak entzun ondoren esan zuten ez zela bere ahotsa. Akusatuek ez zituen galderak erantzun eta astelehenerarte atzeratu zen epaiketa.

■ **Euskal Herritarrok-en Gipuzkoako talde eragilea aurkeztu dute**

DATOZEN hauteskundeetara, Euskal Herritarrok plataformaren helburuak eta asmoak zeintzuk diren aurkeztu zuten atzo prentsaurrekoan. Aldi berean, Gipuzkoako talde eragilea aurkeztu zuten. Talde eragile honen lana, hauteskundeetako Gipuzkoako programa eta zerrendak egitea da eta agente politiko, sindikal eta sozialek osatzen dute. Euskal Herritarrok-ek erakundeetan ezkerreko politika aurrerakoia egiten jarraituko du, honela Euskal Herriaren eraikuntza nazionala eta soziala lortzeko.